# BESTELAKO XEDAPENAK

## INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA ETA ETXEBIZITZA SAILA

## 1064

*EBAZPENA, 2018ko abenduaren 30ekoa, Ingurumeneko sailburuordearena, zeinaren bidez ebazten baita Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburuaren 2018ko ekainaren 6ko Aginduak egin zuen deialdia. Agindu hartan, dirulaguntza batzuetarako deia egin zen, garapen iraunkorreko ekintzak gauzatzen dituzten udal, mankomunitate eta beste toki-entitate eta tokiko erakunde autonomo, toki-garapenerako agentzia eta tokiko merkataritza-sozietateetarako. Era berean, deialdiaren oinarri arautzaileak ere ezarri ziren.*

Egitateak: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburuaren 2018ko ekainaren 6ko Aginduaren bidez, 2018. urterako dirulaguntza batzuetarako deialdia egin zen, garapen iraunkorreko ekintzak gauzatzen dituzten udal, mankomunitate, beste toki-entitate eta tokiko erakunde autonomo, toki-garapenerako agentzia eta tokiko merkataritza-sozietateetarako. Aipatutako agindu hori 2018ko ekainaren 14ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian (114. zenbakia) argitaratu zen.

Egitateak: Eskariak aurkezteko epea 2018ko irailaren 14an amaitu zen, eta guztira 127 eskari iritsi ziren Ingurumen Sailburuordetzako egoitza elektronikora.

Kontuan hartu beharrekoak: Organo ebaluatzaileak, 2018ko ekainaren 6ko Aginduko 14. artikuluaren arabera betiere, aztertu eta balioetsi ditu dirulaguntza eskariak eta egin du zegokion ebazpen-proposamena (berariaz horretarako osatu zen). Ebazpen horretan dago zehazturik, esleipen-irizpideak betez eta aurrekontu-mugak gainditu gabe, aginduaren argitan zer proiektu diren dirulaguntza jasotzeko modukoak eta dirulaguntzen zenbatekoa, eta zer proiektu ezetsi diren eta zergatik.

Kontuan hartu beharrekoak: 2018ko ekainaren 6ko Aginduko 3.2 artikuluan jartzen du ezen, nahikoa eskari aurkeztu ez dela-eta edo aurkeztuek baldintzak betetzen ez dituztela-eta jarduera-ildoren baterako gordetako diru guztia ez bada agortzen, beste jarduera-ildo baterako jasota dagoen kopurura batu ahal izango dela, betiere organo ebaluatzaileak horretarako egiten duen proposamenarekin bat.

Kontuan hartu beharrekoak: Ekonomia Zirkularraren lerroan ez da agortu hasieran aurreikusitako aurrekontu-zuzkidura, eta, ondorioz, organo ebaluatzaileak erabaki du gerakin hori erabiltzea lurzoru kutsatuen, klima-aldaketaren eta natura-ondore eta biodibertsitatearen lerroen aurrekontu-zuzkidura handitzeko.

Kontuan hartu beharrekoak: Xedapen gehigarrian ezarritakoaren arabera, aurrekontu-zuzkidura izanez gero, deialdiaren zenbatekoak handiagotu egin daitezke aldez aurretik deialdia ebatziz, betiere, behin aurrekontu-zuzkidura egokituta, 50 puntu edo gehiago lortu dituzten diruz lagundu daitezkeen proiektu guztien zenbatekoa ordaintzeko behar besteko aurrekontu-zuzkidura badago.

Kontuan hartu beharrekoak: Ingurumeneko sailburuordearen 2018ko azaroaren 28ko Ebazpenaren bidez, Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburuaren 2018ko ekainaren 6ko Aginduko aurreko-zuzkidura handitu egiten da. Agindu hartan, dirulaguntza batzuetarako deia egin zen, garapen iraunkorreko ekintzak gauzatzen dituzten udal, mankomunitate eta beste toki-entitate eta tokiko erakunde autonomo, toki-garapenerako agentzia eta tokiko merkataritza-sozietateetarako. Era berean, deialdiaren oinarri arautzaileak ere ezarri ziren.

Kontuan hartu beharrekoak: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburuaren 2018ko ekainaren 6ko Aginduko 11. artikuluan ezarrita dagoen bezala –han daude arauturik dirulaguntzak–, ekarri beharreko agiriak ekartzeko esan zaie 10. artikuluan zehazturik dauden dokumentu guztiak aurkeztu ez dituztenei edo 2.2 artikuluko baldintzak betetzen dituztela egiaztatu ez dutenei edo aginduan eskatzen zen beste edozer falta zutenei. Amaitu da dokumentazioan eginiko hutsak zuzentzeko epea baina ez dute beste agiririk ekarri, eta, hortaz, jo dugu II. eranskinean zehazturik dauden erakundeek ez dutela eskaririk egin.

Kontuan hartu beharrekoak: Ingurumeneko sailburuak du eskua behin betiko erabakitzeko nori eman dirulaguntza eta zenbat, betiere 2018ko ekainaren 6ko Aginduko 17. artikuluan xedaturik dagoen moduan.

Kontuan hartu beharrekoak: Deialdia egiten duen aginduko 17. artikuluaren arabera, bertan araututako laguntzak, jasangarritasunerako hezkuntzaren lerrokoak salbu, lehia-prozeduraren bidez esleituko dira, hala ezarrita baitago Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina onetsi zuen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren 51.4 artikuluan.

Ikusi ditugu: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburuaren 2018ko ekainaren 6ko Agindua, bertan arautzen eta deitzen baitira garapen iraunkorreko ekintzak gauzatzen dituzten udal, mankomunitate eta beste toki-entitate eta tokiko erakunde autonomo, toki-garapenerako agentzia eta tokiko merkataritza-sozietateetarako 2018. urterako dirulaguntzak; apirilaren 11ko 77/2017 Dekretua, Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza sailaren egitura organiko eta funtzionala ezartzen duena; 24/2016 Dekretua, azaroaren 26koa, Lehendakariarena, Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioko sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituena eta haien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituena; 30/1992 Legea, azaroaren 26koa, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearena; 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena; eta orokorrean aplikatu beharreko gainerako arauak.

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Ebazpen honetako I. eranskinean zehazturik dauden entitateei dirulaguntza ematea. Hor bertan dago zehazturik zer proiektutarako eta zenbat.

Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburuaren 2018ko ekainaren 6ko Aginduko 23. artikuluan xedaturik dagoen bezala ordainduko dira dirulaguntzak.

Bigarrena.– Ebazpen honetako II. eranskinean argitaratzea, zerrenda batean, zer dirulaguntza eskari ezetsi dugun.

Hirugarrena.– Ebazpen honetako III. eranskinean zehaztu ditugun entitateei dirulaguntzarik ez ematea, betiere Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburuaren 2018ko ekainaren 6ko Aginduan erabakitakoaren arabera. Arrazoiak ere eranskin horretan datoz.

Laugarrena.– Agintzea ordain dakiela, I. eranskinean zehazturik dauden entitateei, ebazpen honen bidez emandako dirulaguntzen lehen zatia.

Hurrengo dirulaguntza zatiak ordaintzekotan, aurretiaz, badira agiri batzuk onuradunek aurkeztu beharrekoak. Hala dakar Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburuaren 2018ko ekainaren 6ko Aginduko 22. eta 23. artikuluetan.

Agindu horretako 19. artikuluan datozen obligazioak ere bete beharko dituzte onuradunek.

Bosgarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara dadin agintzea, interesdunei jakitera ematearren –hala egin behar baita Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburuaren 2018ko ekainaren 6ko Aginduko 17.1 artikuluaren arabera–, eta publikotasun-printzipioa betetzearren, hala behar baita egin dirulaguntzak emateko prozedura orotan.

Seigarrena.– Baldintza-orriak banan-banan denei jakinaraz dakien agintzea, diruz lagundutako proiektuak Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburuaren 2018ko ekainaren 6ko Aginduko 18. artikuluaren arabera gauza daitezen.

Zazpigarrena.– Ebazpen honen aurka –ez baitu administrazio-bidea agortzen–, gorako errekurtsoa aurkez dakioke Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburuari, jakinarazten denetik hilabeteko epean, hala dakar-eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 121. eta 122. artikuluetan eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen hirugarren xedapen iragankorraren c letran.

Vitoria-Gasteiz, 2018ko abenduaren 30a.

Ingurumeneko sailburuordea,
MARIA ELENA MORENO ZALDIBAR.

# I. ERANSKINA

## EMANDAKO LAGUNTZAK

Lurzoru kutsatuen lerroa:

| Kodea | Eskatzailea | Proiektua | Puntuazioa | Emandako dirulaguntza (€) |
|---|---|---|---|---|
| 001-SUE-2018 | Ispasterko Udala | Antzinako Onduvisaren aurri industrialaren azterketa eta lurzoruaren kalitatearen esplorazio-ikerketa Ispasterren (Bizkaia) | 52 | 8.064,38 |
| 003-SUE-2018 | Arrigorriagako Udala | 48011-00017. kodea duen kokagunearen esplorazio-ikerketa | 61 | 19.316,48 |
| 004-SUE-2018 | Amurrioko Udala | Amurrioko Larrabe zabortegia Zigilatzeko eta Ixteko Proiektuaren IV. Fasea | 50 | 154.069,18 |
| 005-SUE-2018 | Bilboko Udala | Bilboko Metroaren 3. Lineako obrek Etxebarria Parkean okupatzen zuten eremuko lurzoruaren kalitatearen esplorazio-ikerketa | 61 | 60.000,00 |
| 006-SUE-2018 | Legazpiko Udala | 20051-00055 kokalekua: 2018ko sei hilabeteko ur kontrola | 53 | 5.785,50 |
| 007-SUE-2018 | Sopelako Udala | Iberreko ikerketa xehatuaren lanen 3. Fasea | 57 | 11.033,40 |
| 008-SUE-2018 | Gasteizko udalaren Ingurugiro Gaietarako Ikastegia | Las Neveras Muinoko 01059-01790. eta 01059-01779. Lurzatien ikerketa (Vitoria-Gasteiz). | 52 | 31.525,61 |
| 009-SUE-2018 | Eibarko Udala | Azitain industrialdeko lurpeko uren kalitatearen kontrola eta jarraipena, eta arriskuen balorazioa – 2018 | 53 | 10.415,33 |
| 010-SUE-2018 | Leioako Udala | Leioako Kurkudiko tiro-kantxan kokatutako antzinako zabortegiaren ingurumen-jarraipena eta kontrola | 52 | 8.972,50 |
| 011-SUE-2018 | Aguraingo Udala | Galzarko antzinako hondakin-biltegiaren V. kontrol eta jarraipen kanpaina | 63 | 2.831,00 |
| 012-SUE-2018 | Valle de Trápaga-Trapagarango Udala | 1. eta 2. Lurzatiak deritzenen lurzoruaren kalitatea egiaztatzea, Trapagaran udalerriko antzinako Acrisolada meategiaren lurretan | 50 | 46.702,86 |
| 013-SUE-2018 | Azpeitiko Udala | Azpeitiko antzinako zabortegiaren ingurumen-kontrola eta -jarraipena | 52 | 6.999,33 |
| 014-SUE-2018 | Getxoko Udala | Lurzoruaren Kalitatearen esplorazio-ikerketa Getxon lurperatutako bi depposituren ingurunean | 57 | 8.464,50 |
| 015-SUE-2018 | Oñatiko Udala | Urretxuko zabortegia itxi osteko ingurumen-jarraipena 2018-2019 urteetarako | 65 | 13.775,00 |
| 016-SUE-2018 | Mungiako Udala | Mungiako Larragan zabortegiko arriskuen azterketa kuantitatiboa eta zabortegiaren desgasifikazioaren osteko jarraipen/kontrola | 52 | 11.590,00 |
| 017-SUE-2018 | Bakioko Udala | Meta bat karakterizatzea eta kudeatzea, eta horren ostean lurzoruaren laginketa egitea, Bakio udalerrian kokatutako lurzati batean | 50 | 6.754,22 |
| 018-SUE-2018 | Astigarragako Udala | Lurzoruaren kalitatearen esplorazio-ikerketarako lanak antzinako «Petritegi» zabortegiko lurretan – Astigarraga – 20903-00005. kodea | 53 | 60.000,00 |
| 019-SUE-2018 | Berastegiko Udala | Lurzoruaren kalitatearen esplorazio-ikerketa Artalekuren eremuan (Kodea: 20022-00005) | 56 | 23.731,00 |
| 020-SUE-2018 | Beasaingo Udala | Manufacturas Olaranen antzinako instalazioetako lurzoruaren kalitatearen ikerketa xehatua, Beasainen (Gipuzkoa) | 81 | 6.677,08 |
| 021-SUE-2018 | Durangoko Udala | Tabira Aparkalekua kokaguneko lurzoruaren kalitatearen esplorazio-ikerketa, Durango udalerrian, Bizkaia. Inbentario-kodea: 48027-00109 | 51 | 10.128,80 |
| 022-SUE-2018 | Arrasateko Udala | Aprendices Eraikinaren lurzorua lehengoratzea | 61 | 80.176,98 |
| 023-SUE-2018 | Getxo Kirolak | Lurzoruaren kalitateari buruzko ikerketa Fadurako Pabilioiaren eremu batzuetan. Getxo | 64 | 41.565,60 |

Klima-aldaketaren lerroa:

| Kodea | Eskatzailea | Proiektua | Puntuazioa | Emandako dirulaguntza () |
|---|---|---|---|---|
| 001-ATM-2018 | Arrigorriagako Udala | Bi ibilgailu eta haien birkargarako azpiegiturak erostea | 73 | 9.033,06 |
| 002-ATM-2018 | Okondoko Udala | Ibilgailu elektriko bat erostea eta birkarga-puntu bat jartzea | 86 | 6.120,00 |
| 003-ATM-2018 | Gatikako Udala | Disuasio aparkalekua Sertutxa Auzoan | 60 | 55.480,00 |
| 004-ATM-2018 | Alegría-Dulantziko Udala | Bidegorria kirol eta eskola eremurantz | 66 | 31.360,54 |
| 005-ATM-2018 | Barrikako Udala | Barrikako bizikleta eta oinezkoentzako bide sarea. Goierri-Zabaletxe tartea egitea | 73 | 80.000,00 |
| 006-ATM-2018 | Altzoko Udala | Altzo eta Alegiako herriguneak lotu eta oinez edo bizikletaz ibilbidea egiteko bidea egokitu | 85 | 12.992,80 |
| 007-ATM-2018 | Kanpezuko Udala | Mugikortasun jasangarria sustatzea, disuasio-aparkaleku bat Kanpezu (Araba) herrian eraikitzearen bitartez | 73 | 4.052,47 |
| 009-ATM-2018 | Eskoriatzako Udala | Udaltzainentzako ibilgailu elektriko bat erostea | 56 | 4.000,00 |
| 010-ATM-2018 | Antoñanako Administrazio Batzarra | Mugikortasun jasangarria sustatzea, birkarga elektrikorako puntu bat jartzearen eta bizikleta elektrikoen erabilera sustatzearen bidez, Antoñanako Administrazio Batzarrean, Araba | 61 | 6.165,65 |
| 012-ATM-2018 | Amurrioko Udala | Entxufa daitekeen lur orotako SUV ibilgailu hibrido bat erostea udaltzaingoarentzat | 77 | 4.000,00 |
| 013-ATM-2018 | Otxandioko Udala | Otxandion oinezko-bizikleta sare mistoaren eraikuntza herriko mugikortasun fluxu eragile nagusien artean: Herriko bizigune nagusia eta Mainondo ekipamendu gunea konektatzen dituena Samartoi-Ospitalkale ibiltartean | 66 | 80.000,00 |
| 014-ATM-2018 | Amorebieta-Etxanoko Udala | Larrearako bidegorri proiektua | 73 | 80.000,00 |
| 015-ATM-2018 | Compañía del Tranvía de San Sebastián, S.A.U. | 4 autobus hibrido erostea | 85 | 80.000,00 |
| 017-ATM-2018 | Ermuako Udala | Ermuko Marqués de Valdespina kalea eta URTIA industrialdea lotzeko bidegorriaren proiektua erredaktatzea eta eraikuntza-obrak egitea | 63 | 29.130,64 |
| 018-ATM-2018 | Alegiako Udala | Altzo eta Alegia arteko oinezko eta bizikleten bidea egitea | 74 | 18.508,54 |
| 019-ATM-2018 | Eako Udala | Ea klima-aldaketari egokitzeko plana | 70 | 11.600,00 |
| 020-ATM-2018 | Arrasateko Udala | Etxaluze-Maala Ekobulebarra egokitzeko proiektua idaztea | 85 | 4.500,00 |
| 022-ATM-2018 | Bakioko Udala | Kostaldeko barne-padura sortzea Bakion | 92 | 80.000,00 |
| 023-ATM-2018 | Erandioko Udala | Tartangako atzealdea urbanizatzeko proiektua. Erandio (Bidegorria) | 55 | 15.371,71 |

Natura-ondarearen eta biodibertsitatearen lerroa:

| Kodea | Eskatzailea | Proiektua | Puntuazioa | Emandako dirulaguntza () |
|---|---|---|---|---|
| 001-BIO-2018 | Lezoko Udala | Olatzar erreka lehengoratzea, bioingeniaritzako tekniken bidez | 50 | 7.962,29 |
| 002-BIO-2018 | Entziako Partzoneria | Tornado batek Entzia KBE ES210022 Kontserbazio Bereziko Eremuan suntsitu zuen pagadia lehengoratzeko jarduerak | 69 | 50.000,00 |
| 003-BIO-2018 | Hondarribiko Udala | Jaizkibel KBEko (ES21200717) Kapelaundin dauden habitaten leheneratze lanak eta flora mehatxatuaren kontserbaziorako ekintzak (2019-2020) | 67 | 9.574,58 |
| 004-BIO-2018 | Urretxuko Udala | Urretxuko Irimo mendiaren ingurumen hobekuntza eta biodibertsitatearen kontserbaziorako ekintzak | 50 | 50.000,00 |
| 005-BIO-2018 | Iturrietako Partzoneria | 6230* lehentasunezko intereseko habitata lehengoratzeko jarduerak ES2110022 KBEan (II. fasea) | 69 | 12.753,75 |
| 006-BIO-2018 | Aramaioko Udala | Salaberri agestoixe proiektua | 50 | 6.053,40 |
| 007-BIO-2018 | Kanpezuko Udala | Hondakinak garbitzeko lanak Kanpezu udalerriko erribera eta uberketan | 69 | 10.000,00 |
| 008-BIO-2018 | Alegiako Udala | Galtzeko arriskuan dagoen Carpinus betulus L. espeziearen berreskurapen lanak Alegian | 66 | 22.317,95 |
| 009-BIO-2018 | Getxoko Udala | Aixerrotako txilardi atlantikoa lehengoratzea | 68 | 25.850,00 |
| 010-BIO-2018 | Lunako Batzorde Administratiboa | Abereentzako hornidura Gobaten (Luna) hobetzeko proposamena | 57 | 6.149,08 |
| 011-BIO-2018 | Alkizako Udala | Batasunaren intereseko habitat naturalak hobetzeko eta mehatxupeko faunaren espezieak kontserbatzeko lanak Hernio-Gazume KBEan | 72 | 39.900,00 |
| 012-BIO-2018 | Otxandioko Udala | Lurralde-konektibitatea areagotzea Urrunagako urtegiaren trantsizio-eremuan | 61 | 28.563,01 |
| 013-BIO-2018 | Itsasondoko Udala | Murumendiko lotura eremu eta korridoreko jarraitasun ekologikoa hobetzeko ekimenak | 80 | 35.720,00 |
| 015-BIO-2018 | Lezako Udala | Biodibertsitatea kontserbatzea Leza udalerriko iparraldean, zenbait jarduera abiatuz Arabako Hegoaldeko Mendilerroa KBEan | 53 | 6.175,95 |
| 016-BIO-2018 | Bermeoko Udala | Tonpoi ingurua berreskuratzeko ekintza plan | 58 | 50.000,00 |
| 017-BIO-2018 | Bilboko Udala | Biodibertsitatea hobetzea Artxondoko harrobian | 52 | 9.857,04 |
| 019-BIO-2018 | Amurrioko Udala | Hondakinak ibai eta erreketatik kentzeko eta flora exotiko inbaditzaileko espezieak erauzteko plana, Amurrio udalerrian | 50 | 10.000,00 |
| 020-BIO-2018 | Hernaniko Udala | Aiako Harria-Urumea KBEn arteko haranetan bioaniztasunaren kontserbaziorako ekintzak: landare exotiko inbaditzaileen erauzketa eta mikrohezegune sarea egonkortzeko lanak. IV. fasea (2019-2020) | 75 | 31.478,55 |
| 021-BIO-2018 | Erandioko Udala | Woordwardia radicans populazio-gunea eta haltzadi/lizardi Habitata *(91E0) babestea Asakiturri errekan, espezie inbaditzaileak erauzi eta erriberako basoa handitzearen bitartez | 51 | 7.875,00 |
| 023-BIO-2018 | Eskoriatzako Udala | Erreka garbiketa | 51 | 4.750,00 |
| 024-BIO-2018 | Navaridasko Udala | Navaridas aintzira kontserbatzeko neurriak (B8A9) | 62 | 9.452,50 |
| 026-BIO-2018 | Vitoria-Gasteizko Udala | Biodibertsitatea bultzatzeko jarduerak Salburuko Kontserbazio Eremu Berezian eta Hegaztien Babeserako Eremu Berezian | 82 | 21.877,69 |
| 027-BIO-2018 | Zaratamoko Udala | Txarrotako hezegunea lehengoratzea. 2. fasea | 50 | 50.000,00 |

Ekonomia zirkularraren lerroa:

| Kodea | Eskatzailea | Proiektua | Puntuazioa | Emandako dirulaguntza (€) |
|---|---|---|---|---|
| 001-EKZ-2018 | Berastegiko Udala | Kako jatetxean sorturiko hondakin organikoaren prebentzioa | 80 | 2.118,21 |
| 002-EKZ-2018 | Arratzua-Ubarrundiako Udala | Errefusa batzeko sistema bat ezartzea, pertsona erabiltzailea identifikatzearen bidez. | 82 | 17.377,50 |
| 003-EKZ-2018 | Bilboko Udala | Pertsona erabiltzaileak identifikatzeko txartel elektronikoak erostea, materia organikoaren gaikako bilketarako | 74 | 25.000,00 |
| 004-EKZ-2018 | Urola Kostako Udal Elkartea | Urola Kostako Udal Elkartean hondakinen sorrera bidezko ordainketa-sistemaren azterketa eta ezarpena | 79 | 10.392,00 |
| 005-EKZ-2018 | Cuadrilla de Ayala-Aiarako Kuadrilla | Ekonomia zirkularra: konponketa eta berrerabilera Garbigunearen bitartez | 66 | 16.000,00 |
| 006-EKZ-2018 | Leioako Udala | Hondakin organikoen birziklapena sustatzea, ezartzea eta haren inguruan sentsibilizatzea Leioa udalerrian | 66 | 9.560,00 |
| 007-EKZ-2018 | Zizurkilko Udala | Hondakinen prebentziorako programa | 87 | 11.370,03 |
| 008-EKZ-2018 | Donostiako Udala | Ekonomia zirkularra: elikagaien alferrikako galera prebenitzea Loiolako Erriberetan | 75 | 25.000,00 |
| 009-EKZ-2018 | Basauriko Udala | Materia organiko konpostagarria batzeko zerbitzua udalerriko sortzaile handiei zabaltzea. | 89 | 18.140,17 |
| 011-EKZ-2018 | Txorierriko Udal Zerbitzuak | Itxitura elektronikoa eta kaxoi bolumetrikoa dituzten 155 edukiontzi hornitzea | 71 | 25.000,00 |

Jasangarritasunerako hezkuntzaren lerroa:

| Kodea | Eskatzailea | Proiektua | Emandako dirulaguntza (€) |
|---|---|---|---|
| 001-EDU-2018 | Zuiako Udala | Eskolako Agenda 21 Programa. 2018-2019 ikasturtea | 483,89 |
| 002-EDU-2018 | Gasteizko udalaren Ingurugiro Gaietarako Ikastegia | Tokiko Agenda 21en eta Eskolako Agenda 21en arteko koordinazioa: Gasteizko Eskolako Agenda 21 – 2019-2019 ikasturtea: Elikadura jasangarria | 10.215,46 |
| 003-EDU-2018 | Gordexolako Udala | Eskolako Agenda 21 | 430,12 |
| 004-EDU-2018 | Tolosako Udala | Tolosako ikastetxeek EA21eko programa dinamizatzea eta koordinatzea. Gaia: lur zorua | 16.000,00 |
| 005-EDU-2018 | Errenteriako Udala | Errenteriako Tokiko Agenda 21 Eta Eskola Agenda 21 Koordinatzea, 2018-2019 Ikasturtea | 6.989,53 |
| 006-EDU-2018 | Uribe Kosta Zerbitzu Mankomunitatea | Tokiko Agenda 21en eta Eskolako Agenda 21en arteko koordinazioa - 2018-2019 ikasturtea | 3.046,72 |
| 007-EDU-2018 | Durangoko Merinaldearen Amankomunazgoa | Tokiko Agenda 21en eta Eskolako Agenda 21en arteko koordinazioa - 2018-2019 ikasturtea | 2.375,46 |
| 008-EDU-2018 | Urola Kostako Udal Elkartea | 2018-2019 Ikasturtean Zarautz, Zestoa eta Zumaiako ikastetxeetan EA21 garatzeko programa | 5.690,55 |
| 009-EDU-2018 | Legutioko Udala | Jasangarritasunerako hezkuntza, TA21 eta EA21 koordinatzea | 232,98 |
| 010-EDU-2018 | Itsasondoko Udala | Eskola Agenda 21. 2018-2019 Ikasturtea | 471,70 |
| 011-EDU-2018 | Sopuertako Udala | Eskolako Agenda 21 - 2018-2019 ikasturtea | 537,66 |
| 012-EDU-2018 | Aretxabaletako Udala | Jasangarritasunaren aldeko hezkuntza /Educación por la sostenibilidad. Dirulaguntza eskaera | 2.433,08 |
| 013-EDU-2018 | Portugaleteko Udala | Tokiko Agenda 21en eta Eskolako Agenda 21en arteko koordinazioa - 2018-2019 ikasturtea | 5.914,22 |
| 014-EDU-2018 | Tolosaldea Garatzen, S.A. | Tolosaldeko Eskola Agenda 2018-2019 | 8.995,34 |
| 015-EDU-2018 | Amurrioko Udala | Eskolako Agenda 21 Amurrion - 2018-2019. Natura-ingurunearen ondarea | 5.018,12 |

| Kodea | Eskatzailea | Proiektua | Emandako dirulaguntza (€) |
|---|---|---|---|
| 016-EDU-2018 | Laudioko Udala | Tokiko Agenda 21en eta Eskolako Agenda 21en arteko koordinazioa - 2018-2019 ikasturtea | 5.376,56 |
| 017-EDU-2018 | Hondarribiko Udala | 2018-2019 ikasturtean Eskola Agenda 21 hezkuntza-programa koordinatu eta dinamizatzea | 10.215,46 |
| 018-EDU-2018 | Erandioko Udala | Eskola Agenda 21 Erandio | 6.040,03 |
| 019-EDU-2018 | Udaltalde 21 Nerbioi-Ibaizabal | Tokiko Agenda 21en eta Eskolako Agenda 21en arteko koordinazioa Arrigorriaga, Etxebarri, Galdakao eta Ugao-Miraballesen. 2018-2019 ikasturtea | 5.645,39 |
| 020-EDU-2018 | Azpeitiko Udala | EA21: Ekoizpen eta kontsumo jasangarriak | 4.211,64 |
| 021-EDU-2018 | Lezoko Udala | Lezoko ikastetxeetan Eskolako Agenda 21 hezkuntza programa (2018-2019 ikasturtea: klima-aldaketa) | 3.767,18 |
| 022-EDU-018 | Hernaniko Udala | Tokiko Agenda 21 eta Eskolako Agenda 21 koordinatzea, 2018-2019 ikasturtea | 4.480,47 |
| 023-EDU-2018 | Oiartzungo Udala | 2018-2019 Ikasturtean Oiartzungo Eskola Agenda 21 dinamizatzeko aholkularitza zerbitzua | 3.656,06 |
| 024-EDU-2018 | Lazkaoko Udala | Eskolako agenda 21, 2018-2019 ikasturtea | 1.676,77 |
| 025-EDU-2018 | Valle de Trápaga-Trapagarango Udala | Tokiko Agenda 21en eta Eskolako Agenda 21en arteko koordinazioa, 2018-2019 ikasturtea | 2.213,35 |
| 026-EDU-2018 | Beasaingo Udala | Tokiko Agenda 21 eta Eskolako Agenda 21 koordinatzea, 2018-2019 ikasturtea | 2.105,82 |
| 027-EDU-2018 | Getxoko Udala | Eskolako XXI Agenda, Getxo, 2018-2019 | 16.000,00 |
| 028-EDU-2018 | Leioako Udala | Tokiko Agenda 21 eta Eskolako Agenda 21 koordinatzeko jarduerak | 11.469,99 |
| 029-EDU-2018 | Bergarako Udala | Bergarako Eskola Agenda 21: 2018-2019 ikasturtea | 4.928,51 |
| 030-EDU-2018 | Arratiako Udalen Mankomunitatea | Arratiako Eskolako Agenda 21 - 2018-2019 | 4.941,55 |
| 031-EDU-2018 | Urnietako Udala | Urnietako Eskolako Agenda 21 prozesua dinamizatzeko laguntza teknikoa | 2.770,72 |
| 033-EDU-2018 | Ordiziako Udala | Tokiko Agenda 21 eta Eskolako Agenda 21 koordinatzea, 2018-2019 ikasturtea | 1.684,66 |
| 034-EDU-2018 | Abanto y Ciérvana-Abanto Zierbenako Udala | Tokiko Agenda 21 eta Eskolako Agenda 21 koordinatzea, 2018-2019 ikasturtea | 1.347,37 |

| Kodea | Eskatzailea | Proiektua | Emandako dirulaguntza (€) |
|---|---|---|---|
| 035-EDU-2018 | Guardia-Arabako Errioxako Kuadrilla | Arabar Errioxako Tokiko Agenda 21en eta Eskolako Agenda 21en arteko koordinazioa, 2018-2019 Ikasturtea | 2.777,89 |
| 037-EDU-2018 | Aiarako Udala | Tokiko Agenda 21, 2018-2019 Ikasturtea | 444,34 |
| 038-EDU-2018 | Mungiako Udala | Tokiko Agenda 21en eta Eskolako Agenda 21en arteko koordinazioa, 2018-2019 Ikasturtea | 10.753,12 |
| 039-EDU-2018 | Irungo Udala | Eskola Agenda 21en eta Tokiko Agenda 21en arteko koordinazioa. 2018-2019 ikasturtea | 6.915,00 |
| 040-EDU-2018 | Amorebieta-Etxanoko Udala | Tokiko Agenda 21en eta Eskolako Agenda 21en arteko koordinazioa - 2018-2019 ikasturtea | 11.954,96 |
| 041-EDU-2018 | Barakaldoko Udala | Tokiko Agenda 21en eta Eskolako Agenda 21en arteko koordinazioa - 2018-2019 ikasturtea | 4.874,39 |
| 042-EDU-2018 | Donostiako Udala | Eskolako agenda 21, 2018-2019 | 11.469,99 |
| 043-EDU-2018 | Debegesa | Debabarreneko Eskola Agenda 21  2018-2019 | 7.800,75 |
| 044-EDU-2018 | Cuadrilla de Ayala-Aiarako Kuadrilla | Ingurumen Hezkuntzarako Eskualdeko Ekintzak, Eskolako Agenda 21, 2018-2019 | 2.884,17 |
| 046-EDU-2018 | Bilboko Udala | Tokiko Agenda 21en eta Eskolako Agenda 21en arteko koordinazioa - 2018-2019 ikasturtea | 16.000,00 |
| 047-EDU-2018 | Oñatiko Udala | Oñatiko ikastetxeetan 2018-2019 EA21 programa dinamizatzeko zerbitzua | 2.863,36 |
| 048-EDU-2018 | Azkoitiko Udala | Ekoizpena eta kontsumo jasangarria | 7.168,75 |
| 049-EDU-2018 | Basauriko Udala | Tokiko Agenda 21en eta Eskolako Agenda 21en arteko koordinazioa - 2018-2019 ikasturtea | 7.437,57 |
| 050-EDU-2018 | UGGASA | Tokiko Agenda 21 eta Eskolako Agenda 21 koordinatzea, 2018-2019 ikasturtea | 5.289,35 |

## II. ERANSKINA

## LAGUNTZEN ESKAERAN ATZERA EGIN DUTENAK

Klima-aldaketaren lerroa

| Kodea | Eskatzailea | Proiektua |
|---|---|---|
| 016-ATM-2018 | Beasaingo Udala | Beasaingo Erauskin plazaren oineztatzea eta berrantolaketa, ardatzaren azken fasea |
| 021-ATM-2018 | Leioako Udala | Leioako bidegorriak konektatzea, mugikortasun jasangarria eguneroko bizitzan sortzeko |

Natura-ondarearen eta biodibertsitatearen lerroa

| Kodea | Eskatzailea | Proiektua |
|---|---|---|
| 022-BIO-2018 | Eako Udala | Urtubiagako hezegunearen ingurumen-lehengoratzea |

Ekonomia zirkularraren lerroa

| Kodea | Eskatzailea | Proiektua |
|---|---|---|
| 010-EKZ-2018 | Tolosaldea Garatzen | Ekonomia Zirkularreruntz Tolosaldean |

III. ERANSKINA

UKATUTAKO LAGUNTZAK

Klima-aldaketaren lerroa

| Kodea | Eskatzailea | Proiektua | Ukatzeko arrazoia |
|---|---|---|---|
| 011-ATM-2018 | Kanpezuko Udala | SENPA eraikina zaharberritzea | Ez du betetzen aginduaren 2.2.b) artikulua - Dirulaguntzen xede diren ekintzek bete beharreko baldintzak |

Natura-ondarearen eta biodibertsitatearen lerroa

| Kodea | Eskatzailea | Proiektua | Ukatzeko arrazoia |
|---|---|---|---|
| 018-BIO-2018 | Arrasateko Udala | Antoniña errekan hezegunea sortzeko inplantazio proiektua idaztea | Ez du betetzen aginduaren 2.2.c) artikulua - Dirulaguntzen xede diren ekintzek bete beharreko baldintzak |